

## AGINTARIAK ETA LANGILEAK

### Oposizioak eta lehiaketak

#### URAREN EUSKAL AGENTZIA

## 1594

*EBAZPENA, 2026ko apiriliaren 4koa, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, Uraren Euskal Agentziako ebaluazio arduradun lanpostua behin betiko betetzeko eta lan-poltsa sortzeko hautaketa-prozesurako deialdia egiten duena.*

Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 8.2 eta 8.4 artikuluetan ezarritakoaren arabera, Uraren Euskal Agentziaren zerbitzura kontratatutako langileek lan-zuzenbidea bete beharko dute, eta Uraren Euskal Agentziari dagokio zehaztea lanpostu horietara iristeko araubidea, hautapen-proben betekizunak eta ezaugarriak, bai eta lanpostuak betetzeko eta lanbide-sustapenerako prozeduren deialdia, kudeaketa eta ebazpena ere, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera.

Uraren Euskal Agentziaren Estatutuak onartzen dituen azaroaren 28ko 178/2023 Dekretuak 11.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, funtzionarioentzat gordeta ez dauden eta lan-harremana duten lanpostuak Agentziaren Zuzendaritza Nagusiaren deialdi publikoaren bidez beteko dira, enplegu publikorako sarbidea arautzen duten printzipioak zorrotz errespetatuz.

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Uraren Euskal Agentziaren zerbitzura aritzen diren lan-kontratuko langileen lanpostu hau behin betiko betetzeko eta lan-poltsa sortzeko hautaketa-prozesua deitzea: Plangintza eta Lanen Zuzendaritzako ebaluazio arduraduna.

Bigarrena.– Deialdi honen xede den hautaketa-prozesua arautzen dituen oinarriak Uraren Euskal Agentziaren web-orrian argitaratzeko agintzea (<http://www.uragentzia.euskadi.eus>).

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera.

Eskaerak Uraren Euskal Agentziaren web-orriaren bidez aurkeztuko dira (<http://www.uragentzia.euskadi.eus>), prozesuaren oinarrietan zehazten den moduan. Oinarriak Uraren Euskal Agentziaren web-orrian argitaratuko dira, EHAako argitalpen-egunean bertan.

Hirugarrena.– Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, deitutako lanpostuari dagokion lan-poltsa eratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 4a.

Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia,  
ASIER LOPEZ ETXEBARRIA.